



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**AZKOITIKO HILERRIKOERRAUSKETA-  
LABEAN EMATEN DIREN ZERBITZUAK  
ARAUTZEKO ORDENANTZA.**

**ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO  
DEL CREMATORIO DEL CEMENTERIO DE  
AZKOITIA.**



**AZKOITIKO HILERRIKO  
ERRAUSKETA-LABEAN EMATEN  
DIREN ZERBITZUAK ARAUTZEKO  
ORDENANTZA.**

**1. artikulua. Xedea.**

Azkoitiko udal hilerriko errausketa-labean ematen diren zerbitzuak arautzea du xede ordenanza honek. Horretarako, 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzekoak, 25.2 J artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

**2. artikulua. Arauak.**

Azkoitiko hilerriko errausketa-labean ematen diren zerbitzuek honako arauak bete beharko dituzte:

A) Hildakoen inguruko Garbitasun eta Sanitate Araudia eta hura garatu edo aldatzeko onartzen diren gainontzeko arauak.

B) Udal Hilerrietako Zerbitzuak Arautzeko Ordenanza Orokorra.

**3. artikulua. Zerbitzuen izaera jurídikoa.**

Azkoitiko udal hilerriko errausketa-labean eman beharreko zerbitzuak herri zerbitzuak dira.

**4. artikulua. Zerbitzuen erabiltzaileak.**

Azkoitiko hilerriko errausketa-labean, indarrean dauden arauak ezarritako administrazio eta sanitate baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartuko dira.

**ORDENANZA REGULADORA DEL  
SERVICIO DEL CREMATORIO DEL  
CEMENTERIO DE AZKOITIA.**

**Artículo 1. Objeto.**

El objeto de esta Ordenanza, es la regulación al amparo de lo prevenido en el art. 25.2 J. de la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, de los Servicios del Crematorio del Cementerio Municipal de Azkoitia.

**Artículo 2. Normas reguladoras.**

La prestación de servicios en el Crematorio del Cementerio de Azkoitia se regirá:

A) Por el Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria y normas que se dicten en su desarrollo o modificación.

B) Por la Ordenanza General de Prestación de los servicios del Cementerio Municipal.

**Artículo 3. Naturaleza jurídica de los servicios.**

Los servicios a prestar en el Crematorio del Cementerio Municipal de Azkoitia tienen la condición de servicios públicos.

**Artículo 4. Usuarios de los servicios.**

En el Crematorio del Cementerio de Azkoitia se admitirán todas las solicitudes de prestación de servicios, que cumplan con los requisitos administrativos y sanitarios que la



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**5. artikulua. Eman beharreko zerbitzuak.**

Errausketa-labeak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

- A) Hilkutxa hartzea, errean izan dadin.
- B) Gorputua erretzea, norbaitek eskaera pribatua eginez gero.
- C) Berreskura ezin daitezkeen gorputzkiak erretzea, Udalak hala aginduz gero.
- D) Gorpuak erretzeko bete beharreko administrazio izapide guztiak betetzea.
- E) Jendeari kasu egitea eta hilerritan egin beharreko administrazio kudeaketa lanak osatzeko izapideak egitea.
- F) Errautsetarako kutzak eta errausketari lotutako bestelako objektuak saltzea.

**6. artikulua. Zerbitzuak eskatzeko bete beharreko baldintzak.**

Errausketa zerbitzuak eskatzen dituztenek honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- A) Lurperatzeko lizentzia edo baimena.
- B) Heriotza egiaztagiria, Erregistro Zibileko medikuak ontzat emana eta honako datuak jasotzen dituena: Hildakoa zein den, zer ordutan hil den eta zergatik. Horrezaz gain, erantzukizunak eskatu beharko liratekeela pentsarazteko inolako aztarnarik ez dagoela adierazi beharko da.
- C) Errauste zerbitzu hau kontratatu

normativa vigente exija.

**Artículo 5. Servicios a prestar.**

La prestación de servicios del Crematorio comprende:

- A) La recepción del féretro para su cremación.
- B) La cremación solicitada de forma privada.
- C) La cremación de restos no recuperables que ordene el Ayuntamiento.
- D) Los trámites administrativos que se exijan en este rito de cremación.
- E) La atención al público y la realización de trámites que complementen las gestiones administrativas de los Cementerios.
- F) La venta de urnas funerarias y objetos relacionados con la cremación.

**Artículo 6. Requisitos de la solicitud de prestación de los servicios.**

Los interesados en la prestación de los servicios de cremación, deben presentar la siguiente documentación:

- A) La licencia o permiso de enterramiento.
- B) El certificado de defunción con el V.<sup>º</sup>B.<sup>º</sup> del médico del Registro Civil, en el que consten: Los datos de identificación del difunto, la hora del fallecimiento, la causa de la muerte y la inexistencia de indicios que puedan dar lugar a exigir responsabilidades.
- C) La declaración jurada del difunto,



**AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

nahi dutela agertzeko, hildakoak, haren senitartekoek edo hurbileneko lagunek sinatutako zinpeko adierazpena.

**7. artikulua. Zerbitzuak emateko modua.**

A) Zerbitzu ematean eta senitarteko eta lagunei ematen zaien tratuan, pertsonen intimitatea, columina eta duintasuna errespetatuko dira, bai eta haien sinesmen erlijioso, filosofiko edo kulturalak ere.

B) Ezin izango da ekintza sozial politikorik edo inolako aldarrikapeni lotutakorik egin, instalazioetan behar den isiltasuna eta bakea hauts dezakeenik.

C) Ezinbesteko arrazoien bat dagoenean edo instalazioak hondatuta daudenean izan ezik, zerbitzua lanegun guztietañ egongo da irekita.

D) Instalazioak zaindu, konpondu edo hobetzeko beharrezkoan den guztietañ, zerbitzua itxi ahal izango da.

E) Hilkutxa labean sartzen denean, pertsona bat egon daiteke bertan.

**8. artikulua. Zerbitzuen gaineko kontrola.**

A) Udalak zerbitzua emateko moduari eta ezagutarazteari dagozkien kontu guztietañ esku hartuko du, baldin eta herriaren interesekoak direla uste badu.

B) Instalazioak txukun eta ongi funtzionatzeko moduan edukiko dira eta eskaerari erantzuteko behar adinakoak izango dira.

C) Errauste zerbitzua kontrolatzeko

de los parientes, o de los allegados más próximos, de estar interesados en contratar esta modalidad rituaria de incineración.

*Artículo 7. Sobre la forma de prestar los servicios.*

A) El servicio y el trato con los familiares y allegados será respetuoso con la intimidad, con el dolor y la dignidad de las personas, y con las convicciones religiosas, filosóficas o culturales.

B) No se permitirán actos sociales de tipo político o reivindicativo que puedan alterar el recogimiento propio de las instalaciones del servicio.

C) Salvo causa de fuerza mayor o avería en las instalaciones, el servicio se mantendrá en funcionamiento solo los días laborables.

D) El servicio se podrá suspender cuando sea imprescindible para su mantenimiento, reparación o mejora de las instalaciones.

E) En la introducción del féretro en el horno, podrá estar presente una persona allegada.

*Artículo 8. Sobre el control de la prestación de los servicios.*

A) El Ayuntamiento intervendrá en todos los aspectos que considere de interés público en la prestación del servicio y en su proyección al público.

B) Las instalaciones se mantendrán en buen estado de funcionamiento y limpieza, y su dotación será la adecuada para cubrir la demanda que se produzca.

C) El servicio de cremación se



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

erregistro liburu bat egongo da. Honako datuak bilduko dira bertan:

1. Nor zen erre den laguna, non zegoen erroldatua eta bestelako gorabeherak.
2. Zer ehorzketa etxek eman dituen zerbitzuak.
3. Errausketa zer egunetan eta zer ordutan egin den.
4. Errautsak nora eramango diren:
  - Azkoitiko Udalaren hilerrietako hilobietan, kolumbarioetan edo haustegietan utziz gero, zenbakia adierazi beharko da.
  - Beste hilerri batera eramanez gero, esan beharko da nora.
  - Hildakoaren senitartekoek edo horretarako baimena duten lagunek nonbait zabalduz gero, hala adierazi beharko da.
  - Senitarteko edo lagunek errausketa-labeen uzten baditzute behar den tokian gorde edo suntsitzeko, hala adierazi beharko da.
- D) Aldian behin, erregistro liburuan jasotako datuen berri emango zaie Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta gainontzeko erakunde eskudunei, Hildakoen inguruko Garbitasun eta Sanitate arauak eta antzekoak betetze aldera.

#### 9. artikulua. Zerbitzuen prezioak.

Zerbitzuen prezioak eta preziok finkatzeko modua zerga arautegiak erabakiko du.

controlará administrativamente con un libro de Registro, que incluirá los siguientes datos:

1. Identificación de la persona incinerada, su empadronamiento e incidencias.
2. Empresa Funeraria que ha prestado los servicios.
3. Fecha y hora de la incineración.
4. El destino que se da a las cenizas:
  - Si se depositan en sepulturas, osarios, nichos o panteones del Cementerio Municipal de Azkoitia se identificará su número.
  - Si se trasladan a otro Cementerio, se señalará su destino.
  - Si han sido libradas por los familiares o allegados autorizados.
  - Si los familiares o allegados las abandonan en el Crematorio para su depósito o destrucción en lugar adecuado.

D) Periódicamente, se comunicarán los datos del libro Registro a la Consejería de Sanidad del Gobierno Vasco y demás Instituciones competentes, en cumplimiento de las normas de Policía Sanitaria Mortuaria y concordantes.

#### Artículo 9. Los precios de los servicios.

El importe y la forma de fijar los precios por los servicios, se establecerá en la correspondiente normativa fiscal.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenanza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**Disposición Final**

Esta Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.